



FONDO SOZIALAZ ETA/EDO PRESTAKUNTZA FONDOAZ BALIATZEKO JARRAIBIDEAK

- 1.- Eskaerak jarraibide hauekin batera doan eskabide-orriaren bidez egin behar dira. Orri horiek hezkuntzako lurralde ordezkarietaz egongo dira laguntzak jaso nahi dituzten guztien eskura.
- 2.- 2010 urteko Fondoak dira. Beraz, bakarrik 2010 urtean ordaindutako gastuak kontutan hartuko dira.
- 3.- Eskabidearekin batera, **NAN**ez gain, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

A.- IRAKASLE ETA HEZIKETA LAN-KONTRATUDUNAK (HEZKUNTZA BEREZIA)

Hezkuntza Bereziarekin zerikusia duten hobekuntza ikastaroak:

- Ikastaroa ematen duen entitateak egindako egiaztagiri/ordainagiria, honako datu hauek dituela: ikaslearen izena, ikastaroaren izena, iraupena eta balioa, beti ere urteari dagokiolarik, halaber ikastaro horiei dagozkien urteko banketxeko abonu-agiriak. Agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dute, baina kopiak ere onartuko dira jatorrizko zigilua baldin badute.

B.- HEZKUNTZA SAILEKO LAN-KONTRATUDUNAK (GARBIKETA ETA SUKALDEA).

1.- PRESTAKUNTZA FONDOA

Hobekuntza ikastaroak, euskalduntzeko ikastaroak, eskola graduatua ateratzeko ikastaroak eta/edo administrazio arloan birgaitzeko ikastaroak

- Ikastaroa ematen duen entitateak egindako egiaztagiri/ordainagiria, honako datu hauek dituela: ikaslearen izena, ikastaroaren izena, iraupena eta balioa, beti ere urteari dagokiolarik, halaber ikastaro horiei dagozkien urteko banketxeko abonu-agiriak. Agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dute, baina kopiak ere onartuko dira jatorrizko zigilua baldin badute.
- Janari-erabiltzaile txartelaren eguneratze ikastaroak direnean, berorren kopia ere aurkeztu beharko da.

2.- FONDO SOZIALA

a) Ortopedia eta birgaiketa fisikoa:

- * Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak **aldez aurretik** egindako aldeko txostena. Erosketa edo tratamenduaren ondoren eginiko informeez ez dute balioa.
- * Tratamendua egin duen erietxearen txostena, haren nondik norakoak azaltzen direla.
- * Tratamenduaren balioaren jatorrizko ordainagiria eta banku abonu-agiria.

b) Betaurrekoak erostea:

- * Betaurrekoen balioaren jatorrizko ordainagiria edo, bestela, fotokopia, jatorrizko zigiluarekin.
- * Sendagile eta/edo Optikariaren egiaztagiria, Fondo Sozialesan aurkezten den pertsonaren patologia, dioptrien kopurua eta abar adierazten.

c) Aparteko gastuak:

- * Konzeptu honetan aparteko gastuak bakarrik sartuko dira eta egiaztatutak egon behar dira agiri jatorrikoekin edo bestela kopia jatorrizko zigiluarekin. Faktura eta banku abonu-agiria aurkeztu beharko da.

- 4.- Eskabideak aurkezteko epea **2011ko martxoaren 1ean hasi eta apirilaren 1ean bukatuko da, biak barne.**
- 5.- Eskaerak hiru Lurraldetako Hezkuntza Ordezkaritzetan aurkeztu behar dira. Aldi berean ere postaz bidali ahal izango dira Hezkuntza Saileko Sindikal Harremanetarako Zerbitzura.